

Iñaki Mendiguren

Etorkinak eta joakinak

Badirudi gure gizarte-joeren zenbait neurketetan (eusko barometro, soziometro eta abarretan) datu kezkarri samarrak agertzen hasi direla, besteak beste, etorkinei buruzko jarretan. Kopuruak ugalduta ahala, krisia areagotu ahala... edozein aitzakia on da gure sentimendu abegitsuak ozpintzen hasteko.

Hona hemen istorio argigarri bat: VII. mendean kaldearrek Pertsiatik bota zituzten Zoroastroren jarraitzaileak, parsiak, eta hauek Indiara joan ziren babes bila. Iheslari haien buruak Indiako erregeari eskatu zion ostatu. Erregeak, erantzun gisa, bere ordezkariak bidali zizkion, baso bat esne ertz-ertzera betea zutela, oso kontuz isur ez zedin. Ez zekiten elkarren hizkuntzarik, baina parsi buruzagiak berehala ulertu zuen keinu haren esanahia. Indian jende asko bizi zen orduan ere, eta ez zegoen, nonbait, biztanle gehiagorentzat lekuri, edalontzian ere esne gehiago sartzen ez zen bezalaxe. Alegia, goxo eta leunki, Indiako erregeak adierazi zien ez zegoela beraientzat lekuri lurralde hartan. Orduan, parsi buruak, Indiako ordezkarien aurrean, azukre apur bat hartu eta kontu handiz esnetara bota omen zuen, kanpora ezer isuri gabe. Alegia, aditzera ematen zuen hinduen artean nahastuko zirela azukrea esnetan bezala. Keinu hura eraginkorra izan zen: parsiak Surat-en lehorreratzeko baimena jaso zuten eta, ordudunik, Indian bizi dira azukrea esnetan bezain gozo eta ezteki.

Istoria polita iruditzen zait, hartzaileon eta etorkinen jarrera ideala adierazten duelako. Guk ere hartuko bagenitu etorkinak halako leuntasunez, ziur asko beraiek errazago integratuko liriteke gure artean, azukrea esnetan bezala. Baina, hasteko, alanbre-hesi, horma elektroniko, polizia eta era guztietako oztopo burokratikoekin hartzen baditugu, eta gero ere urruntasun eta mesfidantzaz begiratzen



DANI BLANCO

badiegu... nekez sentituko dira ongi etorriak gure artean.

Lehenik, bakoitzari dagokio etorkinenganako bere sentimendu eta aurreiritziak aztertzea. Gure ego mentalak, guztiok sare bakar baten osagaitzat hartu ordez, dualismoz jokatzeko du normalean: ni-beste, gutarrak vs kanpotarrak, gure ongizateaz baliatzera etorriak... eta gure identitatearentzat mehatxu direnak. Baina ez al du gizakiak eskubiderik arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik (sexua, erlijioa eta abar medio) bere jaioterritik irten eta, ahal duen lekuan, bizimodu duinagoa bilatzeko? Hobe, noski, bakoitzak bere inguruan aski baliabide izango balu,

kanpora joan beharrik gabe! Baina garapen orekatua edo bizimodu tolerante eta baketsua herrialde guztietan lortzen ez den bitartean, beti izango da iheslaririk. Pentsatzen al dugu euskaldunok ezin garela joan munduan edonora, geure ogibidearen edo bizi-arnasaren bila, tokian tokikoei zerbait kentzen ari garelako?

Gizarte gisa, etorkinak ezagutzea dugu lehen egin beharra: horrek gure kultura zabaltzea eskatzen du, eta lan pedagogiko handia egitea geure ikuspegiak zuzendu edo ñabartzeko. Hedabideek bi aldiz pentsatu beharko lukete zer albiste eman edo ez eman eta nola eman. Politikari batzuen jarrera pozoitsua da benetan, salagarria; eta besteak ere, zenbat aldiz ikusten ditugu herrialde bateko etorkinen elkarrekin bilduta, edo beraien ekitaldietan parte hartzen? Herritar guztioi bidalitako mezuak liriteke horiek.

Euskaldunok ez genuke inoiz ahaztu behar luzaroan geu izan ginela 'joakinak' beste herrialde batzuetan (arrazoi ekonomikoengatik, edo gerra garaian eta ondoren arrazoi politikoengatik). Beraz, baditugu zorrak etorkinekiko, eta men-debaldar zuri aberastu gisa, ez zor moralak bakarrik. ■

Hobe, noski, bakoitzak bere inguruan aski baliabide izango balu, kanpora joan beharrik gabe! Baina garapen orekatua edo bizimodu tolerante eta baketsua herrialde guztietan lortzen ez den bitartean, beti izango da iheslaririk